

JARDUNBIDE EGOKIAK DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN GANAKO INTERAKZIOAN



Argitaratzailea: Cermin.

Irudiak: Perro

Diseinua eta inprimatzea: Eurolan gizarteratze-enpresa

Nafarroako Gobernuak finantzatua


ÍNDICE

1. Sarrera	4
2. Entzumen-desgaitasuna duten pertsonak	6
3. Desgaitasun intelektuala edo garapenaren nahasteak dituzten pertsonak	8
4. Desgaitasun psikikoa edo neurogarapenarena duten pertsonak	10
5. Desgaitasun fisikoa duten pertsonak	11
6. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak	13
7. Gaixotasun mentala duten pertsonak	16
8. Desgaitasun organikoa duten pertsonak	17
9. Ahots-zailtasunak dituzten pertsonak	18
10. Zer da CERMIN?	19



1. SARRERA

Desgaitasunen bat duten pertsonak



Desgaitasunen bat duten pertsonen duintasunarekiko begirunea izan nahi badugu, eta ekitatea, irisgarritasun unibertsala edota berdintasuna erantsi nahi baditugu, halako pertsoneri espazio bat airtortu behar zaie, non haien bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna berenganatuko baitute; halaber, erabateko parte-hartzea izanen dute haien komunitateko bitzta politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean, betiere pertsona guztientzako aukera- eta eskubide-berdintasuna aintzat hartuta.

Desgaitasuna, pertsonen bizitzako inguruabar gisa, gizakion dibertsitatea eta aberastasuna islatzen dituen beste elementu bat da. Desgaitasuna ez da errealitate es-tanko bat, baizik eta gizartearen arragoaren parte dela.

Hitz ugari erabili izan dira desgaitasunen bat duten pertsonak izendatzeko, baina, gaur egun, oro har eta adostasun zabalarekin, baita araudietan ere, badago modu bat zuzentzat jotzen dena: “Desgaitasuna” eta “Desgaitasuna duten pertsonak”. Baztertu behar dira hori adierazteko beste modu batzuk, hala nola minusbaliotasun, dibertsitate funtzional, minusbaliatu, desgaitu, atzeratu, berezi, ezgai, eta abar.

Zergatik eskuliburu hau?

Pertsona guztiek dutelako gizartearen parte hartzeko aukera, gainerako herritarren baldintza berdinetan. Pertsona batzuek ingurune, ondasun edo zerbitzuak erabili ahal izateko, haien gaineko alderdi garrantzitsuak aztertu behar dira, ziurtatzeko gainerako herritarrek bezal-bezalaxe erabiltzeko aukera izanen dutela.

Gutxi gorabehera, herritarren % 10ek du desgaitasunen bat, eta, beraz, halako neurriek eragina dute haiengan, edozein dela ere haien desgaitasuna (zentzumenetakoa, fisikoa, organikoa, intelektuala edo gaixotasun mental bat). Irisgarritasun-beharrak desberdinak dira

pertsona bakoitzean, eta, neurri handi batean, sartu edo komunikatu nahi duten testuinguruaren arabera izaten dira. Era berean, dibertsitate handia dago desgaitasun bakoitzaren barnean.


Garrantzitsua da honako premisa hauek kontuan hartzea:

1. Arreta pertsonari eskaintzea, ez desgaitasunari.
2. Harekin hitz egitea zuzenean, ez laguntzen duen pertsonarekin.
3. Pertsona helduak heldu gisa tratatzea.
4. Saihestea begirada paternalistak (ez erabili jasan, pairatu eta halako hitzik).
5. Ikusi pertsona berdintasunaren ikuspegitik.

Ingurune, ondasun edo zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea ziurtatzeko, beharrezkoa da aintzat hartzea kolektibo zehatz batzuen beharrak eta eskaerak, gizartean parte hartzeko aukera izan dezaten gainerako herritarrek bezal-bezalaxe. Ingurune erabilerrazagoa eta irisgarriagoa lortuz gero, desgaitasun bat duten pertsonen zailtasun gutxiago izanen dute, eta, hortaz, haien autonomia handiago izanen da.

Dokumentu honek oinarritzko gomendio batzuk eman nahi ditu, desgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatuko duten portaerak eta jarrerak errazteko helburuz.

2. ENTZUMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIN



Entzumen-desgaitasuna duten pertso-
nek osatutako kolektiboa oso hetero-
geneoa da, zenbait moduz komunikatzen
dena, ahoz eta/edo zeinu-hizkuntzaz, eta,
beraz, erantzuna indibidualizatu beharko
da pertsonaren baldintzaren arabera.

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonak
zailtasunak aurki ditzakete mezuak deko-
difikatzeko eta gertaerak aurreikusteko or-
duan, baita ahots-hizkuntzaren egituran
oinarrizten diren sinboloak erabiltzeko or-
duan ere. Zailtasun hori areagotu egin dai-
teke mezuak jasotzea zailtzen duen
akustika txarreko egoeretan (inguruko za-
rata, solaskideen arteko distantzia, eta
abar).

Pertsona gor edo hipoakusikoekin gaude-
nean, beste sistema batzuk erabiliko ditugu
komunikazioa osatu eta handitzeko. Horre-
tarako:

- Ez diogu hitz eginen guri begira ez dagoenean.
- Hitz egin nahi badiogu, abisatu eginen dugu; hizpidea zein den ere esanen diogu, eta jakina-
razi eginen diogu gaia aldatzen den bakoitzean.
- Besoan edo sorbaldan ukitu txiki bat eginez erakarriko dugu haren arreta (ez da komeni bu-
ruan edo bizkarra ukitzea, izu-ikara eragin diezaiokegulako), edo, bestela, zeinu diskretu bat
eginez, hitz egin baino lehen.
- Haren altueran kokatuko gara, bereziki haurrak badira edo gurpil-aulki batean eserita ba-
daude.
- Mintzatu bitartean, ez dugu ezer eduki behar ez ezpainenetan ez ahoan.
- Ez dugu eskurik jarriko gure ahoaren aurrean.
- Aurrez aurre hitz eginen diogu, aurpegia ongi argizatuta dugula eta hurbiletik, gure ezpainak
erraz irakur ditzan (2,5 edo 3 metro baino gutxiago).
- Ongi ahoskatuko dugu, baina esajeratu gabe eta ahots-bolumena igo gabe.
- Doinu natural batez hitz eginen dugu beti, ez oso azkar ez oso motel, eta betiere ziurtatuz
hizketaldia ulertzen duela.

- Ez badigu ulertu, errepikatu eginen dugu mezua. Esaldia modu errazago batez eraikiko dugu, baina esaldi zuzena osatuko dugu antzeko esanahia duten beste hitz batzuekin.
- Komunikazioa erraztuko dugu lagungarri izanen zaizkion keinu naturalen bitartez, gehiegizko keinurik gabe. Beharrezkoa balitz, hitz idatziren bat edo marrazkiren bat ere erabil dezakegu.
- Talde batean bagaude, hitz egiteko txandak errespetatuko ditugu, eta urretik adieraziko dugu nork hitz egin behar duen.
- Hobe da ez mintzatzea ibili bitartean.
- Informazio osagarria emanen diogu edozein entzumen-estimuluri buruz (hondoko musika, megafonia bidezko mezuak, taldearentzako ahots-jarraibideak...). Horri esker, hobeki ulertuko dituzte beste pertsona batzuen erreakzioak, eta modu egokiagoan egokituko dute jarrera.
- Zeinu-hizkuntza erabiltzen badu, beharrezkoa da hari begira egotea zeinuak egiten ari denean; ez bada horrela egiten, interes- edo errespetu-faltatzat jotzen da. Gainera, harekin batera zeinu-hizkuntzako interprete bat edo beste pertsona bat badago, pertsonari begiratuko diogu zuzenean nahiz eta beste pertsona batek hitz egin.

3. DESGAITASUN INTELEKTUALA EDO GARAPENAREN NAHASTEAK DITUZTEN PERTSONEKIN



Desgaitasun horren barnean oso profil heterogeneoak daude, nahiz eta muga kognitiboei buruzko ezaugarri komun batzuk izan.

Pertsona horiek ahots-komunikazioaren zailtasun batzuk izan ditzakete, baina horrek ez du esan nahi komunikatzeko gauza ez direnik.

Beti izanen ditugu kontuan honako kontu hauek:

- Hark egindako komentarioak eta proposamenak aintzat hartu behar dira, gutxietsi gabe.
- Komenigarria da esaldi laburrak, argiak eta errazak erabiltzea, ongi uler ditzan; hartara, mezua ahalik eta modu erraz eta

garbienean adieraziko dugu. Ez erabili hizkuntza abstrakturik ez teknizismorik, eta ziurtatu mezua ulertzen duela hizkuntza erraz, ulergarri eta egunerokoa erabiliz.

- Komenigarria da pertsona gure ondoan egotea, haren kontzentrazioa sendoagoa izan dadin.
- Ez aurreratu pertsonaren hizketaldiei, egokitu haren erritmora, eta emazkiozu esku hartzeko aukerak, betiere haren isiluneak errespetatuz.
- Aldaketen aurrean, bereziki komenigarria da informazioa aurreratzea, hitzez adieraztea zer gertatu behar duen, haren egokitze gaitasuna areagotze aldera.
- Ez ikusiarena egin arraroak gerta daitezkeen jokamoldeen aurrean (adibidez, ezohiko ahots-soinu edo keinuen aurrean).
- Komunikazioan, oso lagungarriak dira konparazioak, adibideak edota pertsonarentzako esan-guratsuak diren bizipen-erreferentziak.
- Egokitu zure hizkuntza pertsonaren mailara: hark ez badu ahots-hizkuntzarik, osatu zure adierazpenak material grafiko, zeinu eta keinuen bidez, ulermena errazteko.
- Erabili hizkuntza positiboa.
- Idatzizko materiala erabili beharko dugu, hala nola lanak eta/edo datu garrantzitsuak gogoratzeko baliabideak.
- Kontuan hartu zailtasunak izan ditzaketela denbora ulertzeko; beraz, ziurtatu beharko duzu ongi ulertzen duela (egutegiak, ...).

- Kontuan hartu zailtasunak izan ditzaketela arreta zentratzeko, eta interesa ager dezaketela beste batzuentzat interesik ez duten objektuen gainean.
- Murriztu, ahal dela, zentzumen bidezko estimulazioa eta etenak.
- Kendu erabili behar ez duzun materiala.
- Kontuan hartu pertsona horiek atsegin dutela beste pertsona batzuekin harremanak izatea, nahiz eta batzuetan zailtasunak izan halakoak sortzeko.
- Eman garrantzi handiagoa interakzio sozialari, ahots-hizkuntzaren lagungarri diren alderdiak erabiliz, hala nola keinuak, irribarreak, hurbiltasuna, begirada, doinua... segurtasun- eta lasaitasun-giroa areagotzen baitute. Haren konfiantza bultzatzeko, baliagarria izan daiteke haren intereseko gai bat jorratzea, heldua izanez gero, edota gustuko duen jolasen bat egitea, haurra bada.
- Adin kronologikoaren arabera tratatuko ditugu, eta ez diogu hitz eginen haur baten antzera haurra ez bada; halaber, errespetuz hartuko ditugu haren iritziak edota ikuspuntuak.
- Komenigarria da kontuan hartzea desgaitasun intelektuala edota garapenaren nahasteak dituzten pertsona batzuentzat deserosoa dela kontaktu fisikoa. Arau orokor gisa, beste pertsona batzuekin izaten dugun harremanaren antzekoa izan behar dugu pertsona horiekin ere.
- Erantzun ahalik eta normalizatuena eman behar ditugu.
- Erantzuna emateko denborak errespetatu behar ditugu, baliteke-eta ez etortzea bat gure denborekin.

4. DESGAITASUN PSIKIKOA EDO NEUROGARAPENARENA DUTEN PERTSONEKIN



Desgaitasun horren barnean oso profil heterogeneoak dituzten pertsonak aurkitzen ditugu. Arazoak izan ditzakete komunikazioan –ahozkoan nahiz ahozkoa ez den komunikazioan–, arazoak sozializazioan, eta jarrera estereotipatuak eta intere murriztuak ere izan ditzakete. Honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Agenda bisualen (pertsonearen abstrakzio-mailara egokituak) erabilera, eginen diren jarduerak eta haien ordena markatzeko.
- Arreta bultzatu beharko da, beharrezkoa ez den informazioa murriztuz, distrakzioak kenduz eta egituraketa fisikoa erantsiz.
- Begiraden bidezko harremana bultzatu beharko da; aurrez aurre jarriko gara gure begiak haren begien altueran ditugula, eta saiatuko gara pertsona horrentzat intereseoak diren objektu guztiak gure aurpe-

gira hurbiltzen.

- Komunikazio-sistema handigarriak eta/edo alternatiboak erabiliko ditugu. Sistema-mota pertsona bakoitzaren ezaugarrietara egokituko dugu.
- Hizkuntza murriztu beharko dugu pertsona horiekiko komunikazioan. Hizkuntza argia, laburra eta zehatza erabili.
- Ez erabili hizkuntza figuratua, ezta esaldi eginik edo esanahi bikoitzekorik ere.
- Errutinak garatuko ditugu zenbait egoera sozialetarako, istorio sozialak erabiliz modu esplizituan azaltzeko.
- Komunikazioa irudietara (piktogramak) itzuliko dugu eta laguntza bisualak erabiliko ditugu ingurune guztietan.

5. DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEKIN



Desgaitasun fisikoa duten pertsonek arazoak izaten dituzte ibiltzeko orduan, eta laguntza behar izaten dute mugitzeko; dena dela, goiko gorputz-adarretan ere nabarmendu daiteke desgaitasun fisikoa. Batzuetan, desgaitasunari lotutako beste premia batzuk izan ditzakete, gaitasun manipulatioari, autozaintzari edota komunikazio-gaitasunari lotutakoak. Ingurunea edozein dela ere, honako alderdi hauek hartu behar dira aintzat haiekin izaten diren harremanetan:

- Hari zuzentzean, betiere aurretik eginen dugu, bekoz beko, eta makurtzen eta haren altueran jartzen saiatuko gara gurpil-aulki batean badago. Saiatu bizkarraldetik ez zuzentzen ez ukitzen, ikararik edo espasizitatearik ez sortzeko.
- Jarri gauzak hark eskuratzeko moduan, eta egokitu halaber testuen edo idatzizko mezuen altuera.
- Azalpen baten aurrean edota gauza bati begiratu behar bazaio, komenigarria da lehen lerroan jartzea, gainerako pertsonak zail ez dezaten pertsonaren pertzepzioa, ez ikustean ez entzutean.
- Gurpil-aulkia eramaten laguntzeko orduan, itxaron hark eskatu arte. Gure laguntza egokia da hark eskatuz gero bakarrik. Desgaitasun fisikoa duen pertsonak desgaitasun intelektuala ere badu eta ezin badigu laguntzarik eskatu, beti gure mugimenduak iragarriko ditugu alde aurretik, adieraziz norantz goazen eta zertarako.
- Lekuren batean gelditzen bagara, baieztatuko dugu aulkia ongi kokatua dagoela, galga jarrita eta taldearekiko jarrera integratzaile batean.
- Leku estuetan, erne ibili beharko dugu eskuek eta oinek jo ez dezaten ateetan, hormetan, eta abarretan.

ESKAILERA-MAILA BAT topatuz gero

- Igotzeko, aulkia mailaren aurrean jarriko dugu, halako moduz non lehenbizi aurrealdeko gurpilak igoko baitira, eta gero atzealdekoak. Atzean jarriko gara segurtasuna zaintzeko. Aulki askotan barra bat egoten da atzealdean, oinarekin palanka egiteko aukera ematen diguna igorak errazteko.

- Jaisteko, eskailera-mailari bizkar emanda jarriko dugu aulkia, eta, beraz, atzealdeko gurpilak jaitsiko dira lehenbizi. Oraingoan ere atzean jarriko gara segurtasuna zaintzeko.

ARRAPALA bat aurkituz gero

- Igotzeko, aulkia arrapalaren aurrean egonen da. Behin igota, ziurtatu eginen dugu aulkia erabat gainditu duela aldapa eta geldituta dagoela.
- Jaisteko orduan, aulkia atzerantz jaitsiko da aldapan behera, hari bizkar emanda. Behin behera dagoela, ziurtatu eginen dugu behar bezala kokatuta dagoela.

Desgaitasunari lotutako beste premia batzuk izanez gero, honako hauek ere hartu behar dira kontuan:

- Lesioa zein den, desgaitasun fisikoa duten pertsona batzuek zailtasunak izan ditzakete zenbait objektu edo jantzi erabiltzeko orduan. Zerbait erabili behar badute esku artean, haren egiteko modua eta erritmoa errespetatuko ditugu, guk esku hartu gabe.
- Pertsona batzuek arazoren bat izaten dute ahozko gaitasunean, eta, hortaz, zaila suertatzen zaie esan nahi dutena besteei ulertaraztea. Presarik gabe entzun behar diegu, bukaerara arte, nahiz eta lehenago igarri zer esan nahi diguten. Ez ditugu osatu behar haren esaldiak, ezta haren mezua guk bukatu ere. Ez badugu ulertu, jakinarazi eta berriz aditu arretaz eta lasai, interpretazioetan erori gabe. Baliatu, halaber, pertsonak komunikazio-laguntza gisa erabilgarri dituen laguntza teknikoak edota teknologikoak (tabletak, komunikazio-taulak...).
- Komun-gela egokituei dagokienez, ongi ezagutuko dugu non dauden, haren berri eman ahal izateko inork galdetuz gero. Galdetzen badigute, argi eta garbi adieraziko diogu nondik joan behar duen hurbilen dagoen komunera iristeko. Jarduerak antolatzeke orduan, positiboa da jakitea alde zuzenetik inguruko komunak egokituta ote dauden.
- Arropa janzten eta eranzten laguntzeko orduan, pertsona horietako askok espasmitate agertzen dute urduri edo segurtasunik gabe sentitzen diren egoeren aurrean. Egin behar duguna aurretik iragartzea eta pertsona lasaitzea lagungarriak izaten dira espasmitate hori arintzeko.
- Ibilgailuetan (taxi egokituak, furgonetak, autobusak...) egiten diren joan-etorrietan bereziki kalteberak sentitzen dira pertsona horiek. Hori saihesteko, ziurtatu egin behar dugu aulkia behar bezala ainguratuta dagoela, eta segurtasun-uhak guztiak ongi jarrita daudela.
- Kontuan hartu aulki elektriko bat ez dela itzali behar hobeki eusteko.
- Laguntza behar duen gaitasun anbulatorioa duten pertsonen kasuan, hobe da gure besoa edo sorbaldak eskaintzea guk haiek hartu eta indarra egin baino.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsona batzuek ez dute esfinterraren gaineko kontrolirik, edo laguntza behar dute eguneroko higie-jardueretan. Kasu horietan, betiere pertsona horien intimitatea zaindu behar da laguntza ematean, eta ahal den guztietan galdetu egin behar zaie nola eta zer nahiago duten; hori adierazteko modurik ez duten kasuetan, arretaz aztertuko dugu erantzun positiboa edo negatiboa agertzen duten gure estimuluaren aurrean.

6. IKUSMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEKIN



Ikusmen-desgaitasuna ikusmenaren ga-bezia, murrizte edo akatsa da.

Komunikatzeko orduan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Pertsonaren aurpegiari begira mintzatu.
- Zuzenean ikusmen-desgaitasuna duen pertsonari hitz egin jakiteko zer nahi duen, eta ez haren laguntzaileari (halakorik ba-lego).
- Tonu normal batean hitz egin, poliki, garbi eta oihurik egin edo ahotsa goratu gabe.
- Ez erabili “hemen”, “han”, “hau”, “hura” eta halako hitzik; hobe da hitz orientagarrigoak erabiltzea, hala nola “zure ezke-rreran”, “zure atzealdean”...
- Batzuetan, baliagarria izan daiteke haren eskua bideratzea, aldez aurretik abisatu eta gero, objektuaren aldera eta adieraztea zer den.
- Normal-normal erabil ditzakegu “ikusi”,

“begiratu” bezalako hitzak. Ez ditugu tabu gisa hartuko; izan ere, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak hitz horiek erabiltzen ohi dituzte haien solasaldietan.

- Jakinarazi alde egiten dugunean, bestela gerta liteke haren aurrean egonen bagina bezala aritzea hura. Era berean, komenigarria da jakinaraztea itzultzen garenean ere.

ARRISKU BATEN AURREAN (erdi irekita dagoen ate bat, oztopoak bidean...)

- Ez dugu erabiliko antsietatea sor dezakeen adierazpenik, hala nola “kontuz!”, “kasu!”.
- Informazio argiagoa ematen duten adierazpenak erabiliko ditugu, adibidez “geldi!”, aurrera jarrai ez dezan.
- Gero, hitzez azalduko diogu zer arrisku dagoen, edo lagundu egingen diogu hura saihesten.

EREMUAN ZEHAR MUGITU behar izanez gero

- Eremu berriren batean sartzen garen bakoitzean, jakinaraziko diogu bidean zer aurkituko dugun.

- Galdetu eginen diogu laguntza eskaini aurretik; izan ere, ikusmen-desgaitasun bat izateak ez dakar ezinbestean laguntza behar izatea.
- Une jakin batean laguntza behar badu, aldi horretan lagunduko diogu, eta ez dugu luzatuko laguntza beharrezkoa dena baino gehiago.

Pertsonak GURE LAGUNTZA ESKATZEN BADU

- Pertsona itsuaren aurrean kokatuko gara (urrats batera, hor nonbait), makila erabiltzen ez duen aldean, halakorik badago.
- Gure besoa eskainiko diogu, nahi badu har dezan.
- Besoa ukondoaren gainetik hartuko digu. Gure besoak erlaxatuta egon beharko du, eta naturaltasuna transmititu.
- Ez dugu jarri behar haren atzealdean, eta ez hartu haren besoa edo makila aurrerantz bultzatzeko.
- Ezinbestekoa da ikusmen-desgaitasuna duen pertsonak sentitzea bera kudeatzen ari dela gure laguntza, guk agindu gabe.
- Ez dugu gehiegi luzatu behar haren besoa, ez baitu bere gorputzetik gehiegi aldendu behar. Eroso sentitu behar du besoa, eta ukondoa tolestuta eraman behar du.
- Gure pausoa haren beharretara egokituko dugu, baita mugitzen ari garen ingurunera ere, eroso ibil dadin.

LEKU ESTUETAN edo ATEETAN bagaude

- Pertsonak hartu digun besoa atzerantz kokatuko dugu (bizkarraren erdialdean edo) hitzik gabe adierazteko leku estuetatik edo ateetatik pasatzen ari garela.
- Ikusmen-desgaitasuna duen pertsonak bere besoa luzatu behar du pixka batean gidariaren atzealdean kokatzeko.
- Atea edo leku estua igarota, gure besoa berriz ere modu normalean kokatuko dugu, eta horrek adieraziko dio lehen bezala koka daitekeela.

Eskailerak, eskailera-mailak edo arrapalak IGO edo JAITSI behar badira

- Hitzez aurreratuko diogu desnibel bat hurbil dugula, nolakoa den zehaztuta, eta modu perpendikularrean hurbilduko gara eskaileraren edo eskailera-mailaren ertzerara.
- Gelditu eginen gara pixka batean, igotzen edo jaisten hasi baino lehen.
- Betiere eskailera-maila bat aurretik kokatuko gara.
- Igoera edo jaitsiera behin bukatuta, une batez geratuko gara normal ibiltzen hasi aurretik, jakinarazteko bukatu egin dela eskailera edo eskailera-maila. Ibiltzen hasiko gara pertsonak ere hura bukatu duela ziurtatu eta gero.
- Eskailera mekanikoetan, onena da haren eskua jartzea eskudelaren gainean eskailera hasten den tokian, eta hura joatea bakarrik. Kasu horretan, haren aurrealdean kokatuko gara jaitsiera bada, eta atzealdean igoera bada.

IGOGAILU batean

- Joan-etorriei buruzko jarraibideen arabera gidatuko dugu ikusmen-desgaitasuna duen pertsona igogailuraino.
- Abisatu eginen diogu atea irekita dagoenean. Behin hura sartu eta gero, gu sartuko gara eta haren ondoan kokatuko. Ateak automatikoak badira, hitzez adieraziko dugu atea ireki dela eta barrura sartuko gara.
- Igogailuak Braille-zenbakiak baldin baditu, esan eginen diogu, jakin dezan eta nahi badu erabil ditzan.

ITSU-TXAKURREI dagokienez, honela jokatu behar dugu

- Ulertu behar dugu pertsona horrentzako laguntza-elementu bat dela, eta hura arduratzen dela txakurraz eta haren jokamoldea kudeatzen duela.
- Ez aritu interakzioan itsu-txakurrarekin. Saiatu ez hitz egiten ez ukitzen.
- Joan-etorrietan edo geldialdietan, animalia ez dagoen aldean jarriko gara gu.


7. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONEKIN



Gaixotasun mentala duten pertsonek oso profil heterogeneoak agertzen dituzte. Desgaitasun horren barnean, oinarrizko jarduketara-jarraibide batzuk hartuko ditugu kontuan:

- Gaixotasun mentala duen pertsona bat tratatzean begirunez eta diskrezioz ariko gara, modu natural batez, eta berdinak garelara kontuan hartuta.
- Gaixotasun mentalak ez du berekin ekartzen adimen gutxiago izatea; beraz, beste pertsona batekin ariko bagina bezala hitz egingen dugu harekin.
- Haren adin kronologikoari erreparatuta tratatuko dugu, eta ez dugu haurren moduko hizkuntzarik erabiliko heldua bada, eta betiere begirunez hartuko ditugu haren iritziak eta ikuspuntuak. Ez dugu jokamolde paternalistarik izanen, ezta gehiegi babestekorik ere.
- Baztertu egingen ditugu estereotipoak, eta indibidualizatu egingen dugu tratua, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta.

8. DESGAITASUN ORGANIKOA DUTEN PERTSONEKIN



Kasu gehienetan, ikusten ez diren desgaitasunak dira, organismoaren barne-sistemetan edo -organoetan eragiten baitute (kardiopatiak, giltzurruneko gaixotasun kronikoak, neurologikoak, erreumatologikoak, medularrak, zirkulaziokoak, eta abar), eta ez dute beti ageriko sintomarik edota kanpo-adierazpenik. Eragin handia izaten dute mugikortasunean, baina, halaber, ezagutzan edo zentzumenetan ere eragin dezakete, desgaitasunetik edota jatorrizko patologia baten kronizitateetik eratorritako arazoan ondorioz.

- Kalean arazoaren bat gertatuta laguntza behar izaten bada, galdetu pertsonari zer gertatzen zaion, jakiteko nola jokatu; erantzunik ez badago, deitu urgentziarako zerbitzuari eta sekula ez "ukitu jakin gabe".
- Pertsona horiek mugikortasun nabarmen murriztua izaten dute, eta ez dira gauza zutik luze egoteko edota ibilaldi luzeak egiteko;

hortaz, atsedena edo geldialdiak behar izaten dituzte maiz.

- Ez erabili hitz desegokirik, hala nola "alferra", "herrena", "ipotxa", "kexati" eta halakoak, pertsonaren duintasuna gutxiesten baitute haren inguruan dauden pertsonak ikusten ez duten errealitate baten aurrean.
- Joan-etorriak egiteko orduan, laguntza teknikoarekin edo hura gabe, itxaron pertsonak laguntza eskatu arte.

9. AHOTS-ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN



Hitz egiteko gauza ez diren pertsonak dira, edota ahots desberdin batez egiten dutenak (ahots esofagikoa, laringofono bidez, fonazio-protesia), garun-paralisi eta gaixotasun neurodegeneratiboengatik edo arrazoi fisiologikoak tarteko (laringea, faringea edo ahots-kordak kentzeagatik); halere, pertsona horiek arazorik gabe entzuten eta ulertzen dute.

- Hobeki entzuteko, desgaitasuna duen pertsonaren aurrean kokatuko gara.
 - Posible bada, zaratarik gabeko leku bat bilatuko dugu.
 - Errespetatu egingen ditugu hitz egiteko txandak. Desgaitasun hori duen pertsonari kostea egiten zaio hitz egiten hastea.
 - Presarik gabe entzuten dugu, haren denborak errespetatuz eta bukaeraraino; nahiz eta aurreikusi esan nahi duena, ez ditugu osatu behar haren esaldiak, ezta haren mezua aurreratu ere.
- Ulertu ez badiogu, mezua errepikatzeko eskatuko diogu. Ez dugu ulertuarena egingen ulertu ez badugu.
 - Beharrezkoa balitz, eskaini egingen diogu papera, boligrafoa edo idatzizko komunikazioa lantzeko beste tresnaren bat (tableta, telefono mugikorrak, komunikazio-taulak).
 - Ez dugu hitz egingen ez ozenago ez polikiago, eta ez dugu keinurik erabiliko hari ulertarazteko. Halako desgaitasuna duten pertsonak ongi entzuten dute, eta arazorik gabe ulertzen dute.

ZER DA CERMI NAFARROA?

Desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten entitateen Nafarroako Batzordea da CERMI. 2001ean eratu zen, Nafarroako Autonomia Erkidegoan aritzeko helburu argi batekin: defendatzea desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien familien eskubideak eta interesak.


Xedea

Honako hau da CERMI NAFARROAren xedea: desgaitasunaren mugimendu soziala egituratzea Nafarroan desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien familien eskubideak eta interesak defendatzeari begira, haien bizi-baldintzak hobetzeko asmoz.

Gaur egun, Nafarroan desgaitasunen bat duten pertsonak artatzen dituzten gizarte-entitate gehienak –irabazi-asmorik gabeak– biltzen dira CERMINen, desgaitasun guztiak hartuta (zentzumenetakoak, fisikoa eta organikoa, intelektuala eta gaixotasun mentala).

Balioak

Honako balio hauek nagusitzen dira CERMINen jardueran: batasuna, barne-kohesioa, funtzionamendu demokratikoa, gardentasuna, independentzia eta neutraltasun politikoa eta ideologikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, dibertsitatearekiko begirunea, jokamolde etikoa eta elkartasun soziala.



CERMIN
■ Navarra - Nafarroa

Nafarroako Gobernuak finantzatua

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

www.cermin.org
948 212787
cermin@cermin.org
Aralar kalea 3, solairuartera, Iruñea.